

JARDUERAK

Enpresa aurrera eramateko zenbait jarduera nahitaezkoak dira. Gure kasuan, gure enpresa bi alderdietan arituko da: digitalean eta fisikoan. Alderdi digitalerako gure plataforma modu egokian gestionatu beharra izango dugu, egunero eguneratzen eta modu egoki batean mantentzen. Hau gutxi balitz bezala, gure plataforma promozionatu beharko dugu, sare sozialak direla medio, instagram, twitter eta facebook, besteak beste. Horretarako guztirako, fisikoki edukiko dugun stand-ak modu oso eraginkorrean ere lagunduko diguelakoan gaude.

Alderdi fisikoan, ordea, gure produktuaren kalitatea ona dela kontrolatu behar dugu denbora guztian, izan ere, oso garrantzitsua da gure bezeroak gure produktuarekin gustora eta eroso sentitzea. Beste alde batetik, kontuan eduki behar dugu gure produktuaren entrega, oso garrantzitsua delako gure produktua modu garbi eta seguru batean iristea erosleei. Hau lortu ahal izateko, packing-ean enfasia egin beharko dugu, gure produktua egoera hobereanean iritsi ahal izateko fabrikatik dendara.